



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

## DEKRETUA

Ibilgailu elektrikoak kargatzeko instalazioak ezartzearen arloko administrazioaren esku-hartzea funtsatzen duten irizpideak landu ditu sail honek.

Kargatze-azpiegitura publikoa garatzea xede duen egungo araudiarekin bat etorri egin da hori, Gasteizko udalerrian kargatze-lekuen instalazioa dinamizatzeko aldera, eta, horrenbestez, trantsizio energetikoa eta iraunkortasuna modu erabakigarrian bultzatzeko.

Eskumenak eskuordetzeko alkatearen 2019eko ekainaren 21eko dekretuaren bitartez Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko zinegotzi ordezkariaren esku utzi zen zeregin hau: saileko zerbitzuen esparruan dekretuak, ebazpenak eta jarraibideak ematea, eta egintza horien kontra aurkez litezkeen errekurtsoak ebaztea, dekretuan bertan adierazten ziren salbuespenekin.

Horrenbestez, Toki Araubidearen Oinarrien Legean aurreikusitako eskumenak baliaturik —Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko ekainaren 21eko erabakiaren bidez beraren gain utzitako aginpidea dela medio—, Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko zinegotzi ordezkariak hau ebatzi du:

1.- Ibilgailu elektrikoak kargatzeko instalazioak ezartzeko administrazioaren esku-hartzearen erregimenari buruzko dekretu honen eranskinean jaso diren irizpideak onestea.

2.- Horiek Udalaren egoitza elektronikoan eta webgunean argitaratzea.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko otsailaren 7an.


Ana Oregi Bastarrika.

Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko zinegotzi ordezkaria

Lurraldearen  
eta Klimaren Aldeko  
ekintzaren Saila  
Departamento  
de Territorio  
y Acción por el Clima

Zerbitzu Juridiko Administrazioa  
Servicio Jurídico-Administrativo

Teodoro Dublang Margolaria,  
25  
Pintor Teodoro Dublang, 25  
01008 Vitoria-Gasteiz  
Tel.: 945 16 11 16  
[medioambiente@vitoria-gasteiz.org](mailto:medioambiente@vitoria-gasteiz.org)  
[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

<b>Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektroniko honen kopia baten osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: <a href="https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/">https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</a></b> El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: <a href="https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/">https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</a> <b>Agiri honek sinadura elektronikoa darama, Sinadura Elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legearen haritik onartua.</b> Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 59/2003, de 19 de diciembre, de firma electrónica.			
<b>Sinatzailearen izena</b> Firmado por	AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZKO UDALA-NIF/IFZ-P0106800F (Tablon)		
<b>EKS (Egiaztatzeko Kode Seguruak)</b> CSV (Código de Verificación Segura)	ZNFRSKGDZAWQV3THPMUNGANA	<b>Data eta Ordua</b> Fecha y hora	11/02/2022 00:02:26
<b>Zerbitzaria</b> Servidor	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	<b>Orrialdea</b> Página	1/5
 ZNFRSKGDZAWQV3THPMUNGANA			



## IBILGAILU ELEKTRIKOAK KARGATZEKO ESTAZIOAK EZARTZEA

### 1. IBILGAILU ELEKTRIKOAK KARGATZEKO ESTAZIOEN JARDUERA PAREKOTZAT JOTZEN ZAIEN HAPO-KO ERABILERAK

Ibilgailu elektrikoak kargatzeko bi instalazio mota bereizten dira jardueraren beraren muntaren arabera. Horrela, alde batetik, ibilgailu elektrikoak kargatzeko estazioak aurreikusten dira, izaera propioa eta independentea dutenak, jarduera ekonomiko nagusi gisa, eta, bestetik, jarduera nagusiaren osagarri diren kargatze-instalazioak, delako jarduera horri zerbitzu ematen diotenak, jarduera horren zuzkiduratzat jotzen direnak.


a) **Ibilgailu elektrikoak kargatzeko instalazioa, izaera propioa duen jarduera gisa. Izendatutako erabilera: HIRI-ZERBITZUAK**

Ibilgailuak kargatzeko estazio bat jarduera nagusi gisa instalatzen delarik, ibilgailuak hornitzeko instalaziotzat joko da, eta hortaz, uztailaren 7ko 706/2017 Errege Dekretuak eragingo dio; izan ere, "Ibilgailuak hornitzeko instalazioak" MI-IP 04 jarraibide tekniko osagarria onetsi zen horren bitartez, petrolio-instalazioen araudiaren zenbait alderdi arautzeaz batera, eta abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretuaren bitartez onetsitako Behe-tentsiorako erregelamendu elektroteknikoa aldatu zeneko 1053/2014 Errege Dekretuaren bitartez onetsitako ITC-BT-52 jarraibidera igortzen du —"Xede bereziko instalazioak. Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura"—.

Jarduera ekonomiko gisa izaera propioa duten horrelako instalazioak HAPON jasotako hiri-zerbitzuen erabilerekin parekatzat jotzen dira. Ezarri ahal izateko, erabilera independente gisa onartuta egon behar dute aplikatu beharreko ordenantzen arabera dagokion hirigintza-bateragarritasunaren laukian.

b) **Ibilgailu elektrikoak kargatzeko instalazioa, jarduera nagusi baten osagarri gisa**

Ibilgailu elektrikoak kargatzeko estazioak, kasu horretan, ez du izaera propiorik jarduera gisa, baizik eta jarduera nagusiaren osagarritzat jotzen da, hari lotutzat. Beraz, jarduera nagusiaren erabilera mantentzen da —bizitegia, hirugarren sektoreko

<b>Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopiatan osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: <a href="https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/">https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</a></b> El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: <a href="https://sedelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/">https://sedelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</a> <b>Agiri honek sinadura elektronikoa darama, Sinadura Elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legearen haritik onartua.</b> Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 59/2003, de 19 de diciembre, de firma electrónica.			
<b>Sinatzailearen izena</b> Firmado por	AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZKO UDALA-NIF/IFZ-P0106800F (Tablon)		
<b>EKS (Egiaztatzeko Kode Segurua)</b> CSV (Código de Verificación Segura)	ZNFRSKGDZAWEQV3THPMUNGANA	<b>Data eta Ordua</b> Fecha y hora	11/02/2022 00:02:26
<b>Zerbitzaria</b> Servidor	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	<b>Orrialdea</b> Página	2/5
 ZNFRSKGDZAWEQV3THPMUNGANA			



merkataritza, aparkalekua, ekoizpena...—, eta ez da izango kasu bakoitzean dagokion hirigintza-bateragarritasunaren erregimena baloratu beharrik.

**c) HAPOk erabileren bateragarritasunaren arloko ondorioak**

Ibilgailu elektrikoak kargatzeko estazioak ezartzeko erabilera-izendapenaren eta administrazioaren esku-hartzearen erregimenaren proposamen honek halakoak edozein kokalekutan ezartzea ahalbidetuko du, baldin eta jarduera nagusiaren instalazio osagarritzat jotzen badira.

Ibilgailu elektrikoak kargatzeko estazioak lurzati edo establezimenduan garatzen den jarduera nagusiarekiko loturarik gabeko izaera propioko jarduera gisa ezartzea aplikatzekoa den hirigintza-ordenantzan finkatutako bateragarritasun-erregimenaren mende egongo da, eta hiri-zerbitzutzat joko dira halakoak. Horregatik, eta horrelako erabileren ezarpena HAPOn oso mugatua dagoenez, hurrengo fase batean hirigintza-dokumentu hori aldatzeari ekin beharko zaio, lurzatiaren edo establezimenduaren jarduera nagusi gisa ibilgailu elektrikoak kargatzeko estazioak ezartzeko aukerak areagotze aldera.

**2. BEREKIN DAKARTZAN INGURUMEN-INPAKTUAK**


Ibilgailu elektrikoak kargatzeko instalazioek ez dakarte berekin, *a priori*, ingurumen-inpaktu nabarmenik —emisio akustikoak, hondakin-uren emisioa, hondakin-sorrera, paisaia-inpaktua edo beste—. Bakar-bakarrik arrisku elektrikoa izan daiteke, zein industria-segurtasunaren arloko agintaritza eskudunak kontrolatzen baitu, zerbitzuan jartzeko tramitea dela medio, proiektu teknikoa edo diseinuaren memoria teknikoa aurkezten delarik, kasuan kasu.

Ez kargatze-moduak, ez instalatutako potentzia, ez dira parametro erabakigarriak esku-hartze administratiboaren erregimena finkatzeari dagokionez. Izan ere, erantzukizunpeko adierazpen baten bitartez gauzatuko da hori, mugikortasun elektrikoa, autokontsumoa eta energia berriztagarrien hedapena sustatzeko energiaren esparruko premiazko neurriak ezarri zireneko abenduaren 21eko 29/2021 ELDaren 3. artikuluan xedatutakoaren ildotik —2021/12/22ko BOE, 305. zk.—.

**3. IBILGAILU ELEKTRIKOAK KARGATZEKO ESTAZIOEN ADIBIDEAK.**

Ibilgailu elektrikoak leku pribatuetan kargatzea sartzten da atal honetan, hala nola:

Familia bakarreko edo jabetza bakarreko etxeetako aparkalekuak.

<b>Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektroniko honen kopia baten osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: <a href="https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/">https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</a> El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: <a href="https://sedelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/">https://sedelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</a> Agiri honek sinadura elektronikoa darama, Sinadura Elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legearen haritik onartua. Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 59/2003, de 19 de diciembre, de firma electrónica.</b>			
<b>Sinatzailearen izena</b> Firmado por	AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZKO UDALA-NIF/IFZ-P0106800F (Tablon)		
<b>EKS (Egiaztatzeko Kode Segurua)</b> CSV (Código de Verificación Segura)	ZNFRSKGDZAWQV3THPMUNGANA	<b>Data eta Ordua</b> Fecha y hora	11/02/2022 00:02:26
<b>Zerbitzaria</b> Servidor	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	<b>Orrialdea</b> Página	3/5
 ZNFRSKGDZAWQV3THPMUNGANA			



Jabetza horizontalaren erregimeneko eraikin edo higiezin-multzoetako aparkaleku kolektiboak.

Ibilgailu-flota pribatuen, kooperatiba edo enpresenen nahiz bulegoen aparkalekuak —bertako langile edo kideentzat direnak—, automobil-kontzesionarioen tailerren aparkalekuak eta ibilgailu elektrikoak edo antzekoen udal-biltegiak.

Zerbitzuguneak.

Beste.


#### 4. ERREFERENTZIAZKO ARAUDIA

##### 1.- Gasteizko HAPO:

- Ibilgailu elektrikoak kargatzeko estazioaren instalazioa lurzatian garatuko den erabilera nagusia denean bakarrik aplikatzen da erabileren bateragarritasuna —hiri-zerbitzuak—. Gainerakoetan, zuzkidura-elementutzat jotzen da, eta onargarria da hori instalatzea.
- Zuzkidura-elementutzat jotzen denez, ez dago galdatzerik lurzatioko aparkalekuen kopurua handitu dadila.
- Atzeraemanguneak: Kargatzeko estazioa ez da jarriko lurzatiaren hesian, ezta atzeraemangunean ere. Kontagailu-armairuak baimenduko dira lurzati-itxituretan integratuta (neurketa- eta babes-koadroa).

2.- Abenduaren 12ko 1053/2014 Errege Dekretua, zeinen bitartez behe-tentsiorako erregelamendu elektroteknikoko jarraibide tekniko osagarri bat onetsi baitzen —(ITC) BT 52, "Xede bereziko instalazioak. Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura"—.

3.- Abenduaren 21eko 29/2021 ELD, zeinen bitartez mugikortasun elektrikoak, autokontsumoa eta energia berriztagarrien hedapena sustatzeko energiaren esparruko premiazko neurriak ezarri baitziren —2021/12/22ko BOE, 305. zk.—.

<b>Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopiatan osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: <a href="https://sedelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/">https://sedelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</a> El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: <a href="https://sedelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/">https://sedelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</a> <b>Agiri honek sinadura elektronikoa darama, Sinadura Elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legearen haritik onartua.</b> Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 59/2003, de 19 de diciembre, de firma electrónica.</b>			
<b>Sinatzailearen izena</b> Firmado por	AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZKO UDALA-NIF/IFZ-P0106800F (Tablon)		
<b>EKS (Egiaztatzeko Kode Segurua)</b> CSV (Código de Verificación Segura)	ZNFRSKGDZAWQV3THPMUNGANA	<b>Data eta Ordua</b> Fecha y hora	11/02/2022 00:02:26
<b>Zerbitzaria</b> Servidor	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	<b>Orrialdea</b> Página	4/5
 ZNFRSKGDZAWQV3THPMUNGANA			



## 5. TRAMITAZIOA

1.- Erantzukizunpeko adierazpen gisa tramitatuko da.

- Edozein pertsona fisiko edo juridikok aurkez dezake adierazpena —ez dago zertan eskatu inongo kontratu edo akordiorik, baldin eta eskatzailea ez bada lurzatian garatzen den jarduera nagusiaren titularra—.
- Ez dago Jardueren Kontrolerako Atalaren barne txostenik eskatu beharrik; bai, ordea, Topografiari eta Espazio Publikoari, beharrezkotzat jotzen bada.
- Ikuskatze-bisita egin beharra dago.

(Jarduera sailkatuaren lizentzia eskatu bada, edo jardueraren aurretiko komunikazioa gauzatu, eta proiektuan edo memorian kargatze-lekuak instalatzea aurreikusten bada, gaitze-titulu horien barruan sartuko dira).

2.- Udalak —Eraikuntzen Zerbitzuak— kargatze-lekuak instalatu eta abian jartzeko prestatzen duen erantzukizunpeko adierazpenean funtsezkotzat jotzen den dokumentazioa aurkeztu beharko da.

3.- Kargatze-lekua instalatu ondoren, energia kargatzeko zerbitzua ematen hasi ahal izateko, Euskal Autonomia Erkidegoko Industria Segurtasuneko Administrazioan behe-tentsioko instalazioa abian jartzeko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu izanaren sarrera-erregistroa eduki beharko da, abenduaren 12ko 1053/2014 Errege Dekretua betetze aldera, zeinen bitartez abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretuaren bitartez onetsitako behe-tentsiorako erregelamendu elektroteknikoko jarraibide tekniko osagarri bat onetsi baitzen —(ITC) BT 52, “Xede bereziko instalazioak. Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura”—, eta horren osagarri diren beste jarraibide tekniko batzuk aldatu.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko otsailaren 7an.

LURRALDEAREN ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

<b>Egiaztatzeko kode seguruak (EKS) agiri elektronikoen kopiatan osotasuna egiaztatzea ahalbidetzen du, helbide honetan: <a href="https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/">https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</a> El código de verificación (CSV) permite la verificación de la integridad de una copia de este documento electrónico en la dirección: <a href="https://sedelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/">https://sedelectronica.vitoria-gasteiz.org/verifirmav2/</a> <b>Agiri honek sinadura elektronikoa darama, Sinadura Elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legearen haritik onartua.</b> Este documento incorpora firma electrónica de acuerdo a la Ley 59/2003, de 19 de diciembre, de firma electrónica.</b>			
<b>Sinatzailaren izena</b> Firmado por	AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZKO UDALA-NIF/IFZ-P0106800F (Tablon)		
<b>EKS (Egiaztatzeko Kode Segurua)</b> CSV (Código de Verificación Segura)	ZNFRSKGDZAWEQV3THPMUNGANA	<b>Data eta Ordua</b> Fecha y hora	11/02/2022 00:02:26
<b>Zerbitzaria</b> Servidor	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteizko Udala	<b>Orrialdea</b> Página	5/5
 ZNFRSKGDZAWEQV3THPMUNGANA			